

Formentera.

Biztanledun Balear uharteen artean, txikiena eta hegoalderen dagoena da Formentera. Ibiza uhartearen hegoaldean kokatzen da, eta penintsula Iberiarraren ekialdean. Uharte lasai honek itsasertzeko 69 km ditu, hondartza birjina eta edertasun handiko amildegiz beteta.

Klima leun tipikoki mediterranearra dauka. Euri urri baina indartsuek emankortasun gutxiko lur harritsuak higatzen dituzte. Hareak desagertu egiten dira, eta agerian uzten dute azpian dagoen kareharrizko zolda. Bertan eskultura apaingarriak sortzen dira, flora eta fauna espezie endemiko mediterranearez osaturiko paisaian integratuak.

Uharte txiki honen iparraldean eta bertatik oso gertu bi haitz aurkitzen dira: L'Espalmador eta L'Espardell, Ses Salines d'Eivissa i Formentera Parke Naturaleko parte. Parke hau mediterraneaz bioaniztasunaren eredu da. 2001. urtetik bere kudeaketa eta administrazioa Balear Uharteen Gobernuari dagokio.

Formenterak harrotasunez erakuts ditzake bere ur gardenak, harea zuri distiratsuzko hondoekin, eta askotan ikusten zailak diren itsas espezie ugariaren babesleku.

Arrokaz zipriztinduriko hareatza zabal hauetan hondoraturiko itsasontzi zaharren gorpuek hartzen dute atseden, eta bertan babesten dira zenbait arrain espezie, abadira faltsu hau esaterako. Gainera kontaezineko organismo kopuru batek, bertan, hildako hondakinen artean, aurkitzen du bizitzeko substratua, ekosistema berezi honetako aniztasuna aberastuz.

Familia eta genero ezberdinetako arrain kopuru handiaz gain, Formenterako itsas biozenosia organismo bentoniko mota ezberdinez osatua dago, *Ophiderma longicaudum* espezieko ofiura hau esaterako.

Itsas trikua bezalako ekinodermoak eta beste hainbat ornogabe bizi dira harkaitz eta algazko hondoetan, itsas zola bikain eta konplexu honetan egun bat gehiago biziraun nahian.

Mediterraneo osoan ondoen kontserbaturiko *Posidonia oceanica*-ren belardiak hemen aurkitzen dira eta ur garden eta garbiak oxigenatu eta garbitzen dituzte. Arrain populazioaren mantenuari fabore egiten diote, salpei adibidez. *Posidoniak* fanerogamoak dira, substratua atxiki eta paisaia ezberdin bat osatzen dute.

Barrakuda europarraren sarda handiak utzitako arrain haztegi zaharretan zehar dabilta. Gizakiak egindako eraikuntzak, jada itsasoa eta bertako biztanleen esku.

Ilunabarra iristen denean, eguzkiak, bere jarduna bukatu, atseden hartzen du, eta itsasargiaren distira etenari uzten dio lekukoa, berriz ere, egun batez gehiago, mediterraneaz paraje natural honetako zeruertza argiztatzeko.

Egun berri baten argia itsasertzeko azaleko uretan sartzen da. Bertan *Caulerpa prolifera* algaren belardi zabalak hedatzen dira, eta hemen aszidiak bezalako organismo iragazleak, zarboak bezalako harrapariak eta holoturiak bezalako detritiboroak elkarrekin bizi dira. Guzti hauen alboan, txibiak beldurrik gabe hurbiltzen dira harri bilduzko itsasertzetara, Formentera uharteko ur garbien ezaugarri den lasaitasunaren ikur bat gehiago bailiran.